



# Aretxagazeta



## Garai berrietara egokituz

Iturririk: Kuntz, Txiki, Zamora • Iritzia: Kepa Errasti • Kirolak: Odilo Vazquez

# horma armairuak



**tolesgarriak**

**horma armairu  
irristagarriak**



## AZKARATE ARozTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3  
BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19

ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 01 24

**Ateak, leihoak,  
horma armairuak, tarimak  
eta parketak**

ARDATZA  
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA

# Lasai

**Mirian Manteca  
MASAJISTA**


Masaje terapeutikoa  
Postura ezterketa  
eta egokitzea diplomatur

## ZERBITZUAK

Osteopatia: Kraneala  
Estrukturala  
Funtzionala

Lotura muskularrak

\* Auzpea lekua eskatu 943 77 04 34



## Datorren astetik aurrera Aretxagazeta barrixe kaleratuko da Goienkari barruan eta astero. Ze pentsetan jatzu aldaketie?



**Celia Garcia**

Astero-astero egongo da ze atara Aretxagazetan? Fundamentuzko notiziak baldin badie ondo, baina betetearren idazten bada...



**Ma Carmen Vico**

Onerako baldin bada, ondo dau aldaketak eittie. Oin aldizkari formatue periodiko formatue baino egokixuae dala uste dot.



**Leire Alcalde**

Ez dakitt. Behintzet astero-astero eukiko dittugu notiziak.



**Pablo Txintxurreta**

Bere alde onak eta txarrak ikusten dutzet. Onak, astero urtetie eta bailarako notizien barruan etortie. Txarra, oin daukon nortasuna galtzie.



**Jon Kepa Zubillaga**

Ez dakitt. Astero atarateko notiziak eukiko dittuzue? Nire ustien aldizkari formatue polittuae da, baina oihitura kontue izengo dala uste dot.



**Jose Nuñez**

Ondo pentsetan jat, notiziak kontetan dittuen bi-tartien...

## Aretxagazeta

222. zenbakia. 2001eko urriaren 11n.  
Durana 11, 151 postakutxatila.  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 86 21.  
Faxa: 943 77 18 54  
e-mail: aretxagazeta@goiena.com

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.

Erredakzio-kontseilua: Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre, Ana Hidalgo, Fernando Berrizbeitia.

Erredakzio arduradun eta kazetariak: Amagoia Lasagabaster eta Mirari Altube.

Publizitatea: Ziortza Martin

Kolaboratzaileak: Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Rosa Del Aguilu, Amaia Berezibar, Murruxiko mendi elkarte, Zaria mendi taldea, Loramendi E. E., Udala.

Banatzzaileak: Aitor Urrutia, Iratxe Arbulu, Leire Otaegi.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop, Elk.

Tirada: 1.500 ale.

Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.

Lege gordailua: S5378 / 94. ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxabaletako Udala,  
Gipuzkoako Foru Aldundia eta  
Eusko Jauriaritzako kultura  
sailaren laguntza

## BALITXAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

## EHIZA POSTUAK LORTZEKO ZOZKETAK EGINGO DIRA ARETZ

**TABERNAN** Ehiza garaia heldu da eta hasi dira ehiza postuen zozketak ere. Gatzagako udalak Gipuzkoako ehiza federazioaz hitzarmena egin zuen ehiza postuak uzteko datorren bost urterako. Urriaren 5ean hasi eta azaroa erdi inguru arte, Aretxabaleako Aretz tabernan egingo dira postu horien zozketak astelehenetik eguakotxera bitartean. Arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara izena emateko denbora egoten da eta ostean, ordenagailu bidez postuen zozketa egiten da. 1.200 pezeta kobratzen da zozketa egitea, baina tokatu ezean 500 itzuli egiten dira. Momentuz ehiztari gutxi urreratu bada ere, datorren astetik aurrera barra-barra etorriko dira Gatzagako 62 postuetako bat lortzera.

## Tira-birak udal gobernuan

Anjel Bergaretxe alkateari mehatxuzko eskutitza bidali ziotenetik asko aldatu da udal gobernuaren egoera. Irailaren 11an, Bata-suna alderdiak, mozioa aurkeztu zuen ekintza gaitzesteko, baina ez ohiko bilkura horretara ez zen EAJ-EAko zinegotzirik agertu. Ostean, EAJ eta EA alderdiek idatzi bat bidali zioten alkateari elkartasuna adieraziz, baina era berean, gobernu batzordearen isileko erabaki bat apurtu izana leporatzen zioten.

Ordutik, EAJ-EAko zinegotzirik ez da agertu ez gobernu batzordeetara, ezta osoko bilkuretara ere. Alkatearen erantzunaren zain ei daude, Aretxabaleako EAko lehendakaria den Miguel Angel Delgado-ren esanetan. Zinegotzien

hutsegite horrek atzeratu egin ditu aurrera eroan behar ziren hainbat gai. Izan ere plenotik pasatzen diren gai batzuk gehiengo absolutoa behar dute onartuak izateko, eta katastroaren tipoen aldaketa esaterako onartu barik geratu da.

Datorren astelehenean, hilak 15, ordenantza fiskalak onartzeko ez-ohiko osoko bilkura egingo da. Horrek ere gehiengo behar du aurrera egiteko, eta EAJ-EAko zinegotzirik agertuko ez balitz, alkatearen, Batasunako bost zinegotziren, eta PPko zinegotziaren botoak beharko liriteke. Hala gertatuko balitz, kurio-soa izango litzateke Batasuna eta PPkoaren botuekin doazela gaiak aurrera ikustea gure Euskal Herri honetan.

## ITURRI BARRIA KIROLETXE PAREAN

Iturri barria jarri dute kiroletxe parean dagoen pasialekuan. Zelai ederra dago gainera bertan, futboleko jolastu edo beste barik etzanda egoteko, eta jende asko ibili ez arren momentuz, eskertuko da bertan iturria jarri izana.




## GAZTEMANIAK LEHIAKETAN ATXABALTARRAK SARITUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak musika taldeen inguruan antolatutako Gaztemaniak lehiaketan, Serial Number talde atxabaltarra eta Igor San Juan kantautorea saritu dituzte. Aurkeztutako 28 taldeetatik 15 onenek CDa grabatuko dute eta hor egongo dira bi atxabaltarrak ere. Gogoratu, Serial Number taldea Euskadi gazteak antolatutako lehiaketan ere onenen artean geratu zela.



Irailako plenoetan ez da EAJ-EAko zinegotzirik egon.

### SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA ZENTRUA



- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)

Lezama komertzial zentrua - Santa Kurtz, 24  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 616 965 795

### BEIRALAN KRISTALDEGIA



- ✦ Komunerako altzari eta manparak
- ✦ Horma armairuak
- ✦ Beirate artistikoak
- ✦ Salarako mahaiak
- ✦ Beirate "fusing"ean kalitate handia

Herriko plaza, 8 behea ☎ 943 79 81 78 / 6700997274



## ZABORRA BATZEKO SISTEMA BARRIA JARRI GURA DA

Debagoieneko mankomunitateak zaborra batzeko sistema barria jarri gura du. Gaur egun martizen, eguen eta domeka gauetan besterik ezin daitezke atara zabor poltsak Aretxabaletan, eta gero, kamioia pasatzen da batzera. Mankomunitatearen proposamena edukiontzi bereziak jartea da, edozein egun eta ordutan atera ahal izateko zaborra. Guztira 782 metalezko edukiontzi erosi dira eta Aretxabaletan 65 jarriko lirakeke, 20, 3.200 litrokoak eta 45, 2.400-ekoak. Hauxez gain, beste 138 ere egongo lirakeke azken hauek 1.000 litrokoak.

Mankomunitatean proiektua aurreratua bada ere Aretxabaletako udalak momentuz ez dio baiezikorik eman. Hirigintza-technikariaren esanetan, ondo aztertu gura da gure herri-rako egokia den edo ez erabakitzeko.



*Termitak barrutik jaten dute egurra eta begi bistan ez da ezer ikusten*

## Duranako etxebizitza guztietan begiratuko da termitak dauden

Uztailean atzeman zituzten termiten aztarnak Durana kaleko etxebizitza batean eta noraino dauden zabaldua ikusteko, udalak hartutako Garbi enpresak 5 etxebizitzatan egin ditu azterketak. Emaitzak ikusi ostean, Durana kaleko etxebizitza guztiak aztertzea erabaki da eta hortaintxe ari dira martizen honetan hasita.

Etxebizitza batzuetan atarteko egurrean egin di-

tuzte termitak aurkitzeko zuloak. Beste batzuetan, ostera, goitik behera aztertu dituzte habeak. Udalak, txosten teknikoa egin ahal izateko 700.000 pezeta eman ditu eta azterketa lanak bukatutakoan, bizilagun guztiei bakoitzaren etxebizitzaren egoera zein den azalduko die. Gero, auzokideak eurak izango dira termitak hiltzeko tratamendua aukeratuko dutenak.

## HIRU LANPOSTU KALERATU DITU UDALAK

Aretxabaletako udalak hiru lanpostu kaleratu ditu. Batetik, kultura sailerako kultura teknikaria eta kultura laguntzailea behar dira. Lehenengoa, barne sustapeneko postua da, beraz, kanpoko jendeak ez du aurkezteko aukerarik izango. Bestetik, peiohorzlea behar da.

Eskatzen diren baldintzak urriaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu ziren, eta Estatukoan kaleratzen direnean 20 eguneko epea egongo da izena emateko. Hautaketa frogak, bestalde, abendua inguruan izango dira seguru asko.

## ARIENTZAKO BIDEA ORAINDIK FORU ALDUNDIARENA DA

Aurreko alean Arientzako bidea udalaren eskuetara pasatu dela esan arren, ez da zuzena berria. Momentuz Larrinoko bidea besterik ez da pasatuko eta Arientzakoak Gipuzkoako Foru Aldundiarena izaten jarraituko du. Hala eta guztiz, urte beteren inguruan udalarena izatera pasatuko da seguru asko.



**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tel.: 943 79 01 5

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
Lyonel  
Arquero

Dekorazioa:  
Soraya  
Arquero



# Haizea

*Zure gustoko giroa*

Mitarte z/g  
Aretxabaleta

Tel: 943 79 85 57

## Bazkari jendetsua eta giro paregabea aurtengo jubilatuen egunean

Urtetik urtera gero eta jubilatutako gehiagok hartzen du parte udalak antolatutako jubilatuen egunean. Aurten 280 nagusi alkartu ziren kiroletxean egindako bazkarian. Jakin dugunez gainera, guztiak izan zuten etxera eramateko

opari bana. Hala ere, euren esanetan, nabarmentzekoa bazkarian eta bazkal ostean izandako giro bikaina izan zen. Batek baino gehiagok, gainera, egindako dantzaldien ondoren, hankako min edarrarekin bueltatuko zen etxera.



■ Bazkarian ez zen jateko eta edatekorik falta izan.



■ Hori da hori "Gabartxok" duen estiloa!



■ Ez zaie dirua erori, martxosa-martxosa dantzan dabilta.



■ Bego dantzan egiteko bikote bila ote dabil?



■ Ludiberrikoek jarri zuten dantzan egiteko musika.



■ Umoretsu pasa zuten eguna gure jubilatuek.

**URBALTZ**  
TABERNA

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA

**IBARRA**  
estankoa

PRENTSA ETA  
IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

**Marti**

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72

## Joan ziren San Migelak ere...

San Migel jaiak ospatu genituenetik ia hamabost egun pasatu dira, baina orduko usain, kolore eta giroa gogorarazi gura dizkizuegu. Eguakotzeko euri zaparradak, zapatuko azoka eta omenaldia, eta domekako txirrindulari lasterketak, mus txapelketa edo Tirri tarraren kontzertua denon gogoan geratu dira datorren urte arte.



■ Talo goxoak egin zituzten gero Trilekoek, ehh???



■ Bertsolariak, pailazoak... danetik izan genuen San Migel zapatuan herrian.



■ 500 lagunetik gora egon zen bazkarian, eta danek jan zuten gainera!



■ Produktu sanoak erosi guran iladak egin ziren azokan.



■ Txarritxoek ume bat baino gehiago erakarri zuten.



■ Txurda taloekin eta Oier txakolinarekin. Nork ete dauka estilo hobea?

TXUTXUMUTXUAK



■ Inoiz baino jende gutxiago Beinke-Loramendi dantzan.



■ Jose San Migelek ondo merezitako omenaldia jaso zuen.



■ Jolas parkean haurrak pozik.



■ Wayne eta Eastwood asto gainean.



■ Txirrindularitza kriteriumeko irabazleak.



■ Hordago eta hordago, azkenean txapeldun, zorionak!



■ Tirri-tarrak sekula baino jende gehiago batu zuen plazan.

*Aretz*  
taberna

Markole, 5  
Tel.: 943 79 20 14

**OSKAR  
GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4

**ITURGINTZA**

**J.J**

Jose Jabier Irure

**URA, GASA ETA KALEFAZIOA**

943 79 07 34


**GARBITU S. KOOP**

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tel: 943 79 01 28



**Nafarroako Arizkuren herrian bizi da atxabaltar hau, Itoizko urtegitik oso gertu. Gabonetatik etorri barik zegoen eta egun hauetan gure artean izan da Itoizko egoera salatu eta atxilotuta daukaten lagun baten berri emateko.**



## Txiki Zamora

### Solidarioak Itoizekin taldeko kidea

#### ■ Non dago Arizkuren?

■ Nafarroako Artzibar bailaran dago. Oso herri txikia da eta 40 bat urte zeramatzan bertan inor bizi barik. Orain sei urte talde bat joan eta konpontzen hasi zen. Nik lau urte daramatzat bertan eta gaur egun hamabi lagun bizi gara, horietatik hiru umeak dira eta beste bi ere laster jaioko dira.

#### ■ Nola bizi zarete?

■ Bi etxe ditugu, batek ikuilua dauka. Umeak dituzten bikoteek banandutako gelak daukate eta beste bospaseik batera egiten dugu lo ganbaran. 30 bat ahuntz ditugu, baita astoak eta oiloak ere. Ortua ere badaukagu, gero eta haundiagoa, eta batez ere hortik bizi gara. Hazi biologikoa lortzen ari gara orain, gorde eta kanpotik ekarri beharrik ez izateko. Dirua ere lortu behar iza-

ten dugu furgonetarentzat edo motozerrentzat gasolina erosteko... horretarako mahatsa batzera joaten gara, txozna jarten dugu San Ferminetan edo etxeko produktuekin egindako kontserbak saltzen ditugu.

#### ■ Zertara etorri zara egun hauetan Aretxabaletara?

■ Itoizko urtegia dela eta Iratiko bailaran dagoen arazoaren berri ematera etorri naiz. Batetik, urtegia betetzen hasi gura dute lehenengo frogak egiteko eta horrek ekarriko dituen kalteak jakinarazi gura dizkizuet eta bestetik, kartzelan dagoen Arizkurengo kide baten berri ematen ari naiz. Inñaki, urtegiko kableak moztu ostean atxilotu egin zuten. Orain, ostera, Solidarioak Itoizekin taldea, talde armatua dela esaten ari dira denak multzo berean sartuz.

#### ■ Arizkuren urpean geratuko litzateke?

■ Ez, baina Arizkurenera doan bidea bai, ondorioz kilometrotako buelta egin beharko genuke herrira heltzeko. Inguruetan geratzen diren herrientzat, gainera, arrisku handia dago. Hainbat ikerketa egin dira eta danek diote urtegia arrisku tsua dela, Gobernuak eta Administrazioek, ostera, ez dute ikusi gura.

#### ■ Aretxabaletara zatozenez aldaketa handia igarriten duzu?

■ Bai, nik beste era batera bizitzeko alde egin nuen Aretxabaletatik, kapitalismoan eta kontsumismoan oinarritu bako bizitza gura nuen. Artzibar bailaran ez dago industriarik eta natorrenean gogorra egiten zait hemen zertan ari diren ikustea. Ez dago, gainera, ingu-

rumenarekiko sentsibilizazioz ere: autopista egin behar dela eta inork ez du aurkako iritzirik ematen, beharrezkoa ei da... Hona bueltatzea ere pentsatu izan dut, baserriren bat hartu bizitzeko..., baina oso gogorra egingo litzaidake bapatean sistemarekin aurrez aurre topatzea. Horregatik nago Nafarroan, beste giro batean eta taldean bizi gara han.

#### ■ Nola ikusten duzu zeure burua 10 urte barru?

■ Ez dut pentsatu ere egin gura, auskalo... Orain Itoizeko arazoa dela eta herritik kanpora nabil asko, liberatuta nagoela esan daiteke. Hitzaldiak, antzerkiak, ekintza ugari ari gara egiten. Udazken-negu aldera barriro Arizkurenera bueltatu gura dut bertako martxa hartzeko.

## San Migelei errepassoa

Urtero bezala pasatu dira berriz ere San Migelak. hasiera batean orrialde honetarako zerbait idaztea eskatu zidatenean ez nekien zer idatzi, baina zer hobeto karnabalekin batera Atxabaltara jende gehien erakartzen duten jaietako buruzko balorazioa egitea baino?

Egia esan, nik ederto pasatu nuen eta gainera eguraldia ere sekulakoa izan zen. Urtero moduan eguardian Durana eta Mitarte kaleak jendez beteta ikusten ziren, batzuk urteko poteorik luzeenetakoa izango dena hasten eta beste batzuk merkatuan zer berri dagoen begira. Bazkal ordua heldu zenean Iturrigorri frontoian bildu zen jende mordoarekin harrituta gelditu nintzen! Egia esan horrelako herri bazkaritara jende asko joatea oso ondo dago, alde batetik antolatzaileentzako (kasu honetan Segi eta E.P.E.H) laguntza handia suposatzen duelako eta beste alde batetik jaien erritmoa apur-tzen ez delako. Bide batez, zorionak antolatzaileei horrenbeste pertsonentzat bazkaria antolatzeagatik eta hasieran mahaiekin egon zen nahasketarekin batzuk eduki zuten jarrera kexatia agoantatzen jakiteagatik.

Siesta ordua pasatutakoan urteroko legez Beinke-Loramendi dantza egin zen plazan eta honekin batera Joxe San Migeli merezitako omenaldia. Egia esan San Migeletan arduratu nauen zerbait egon bada, aipatutako dantzan egondako jende kopuru baxua izan da.

Dantzak garai bateko Beinke eta ikastolaren arteko elkarketa irudikatzen du, horregatik hasten da bi multzotan eta bakar batean bukatzen da, Loramendiren sorrera adierazi nahian. Urtetik urtera jende kopurua handitzen joan da eta azken urteetan ehun pertsona inguru izatera ere iritsi gara. Aurten ordea ez dakit zer pasatu den, baina iazko kopuru handitik 44 pertsona bakarrik izatera pasatu gara. Horregatik beste urte batzuetan egon izan den, baina aurten faltatu den jendeari toketxo bat eman gura nioke eta era berean inoiz etorri ez direnak animatu nahi nituzke, datorren urtean etor daitezten. Horrelako ohitura batek urte askotan iraun beharko luke, eta bide honetan...

Gauerdian euskal presoek euskal herriratzearen alde azken urteetan egon den manifestaziorik jendetsuenetakoa egon zen eta hori komentatzea ere gustatuko litzaidake. Batzuk hain ahaztuta daukaten presoek oinarriko eskubideen aldeko kale agerraldian egon zen giroa aspaldi ezta egon eta jaietan berez zegoen giroa kontutan hartuz, manifiesto horrelako martxa egotea oso aproposa iruditu zitzaidan. Nik behintzat primeran pasatu nuen.

Bukatzeko eta presoek gaiarekin ari naizela, goraintziak eta besarkada bat legez kanpo etxetik 700 kilometrotara espetxeraturik dagoen Kepa Urrari.

Kepa **ERRASTI**



**MEMESA**

**Industri hornidurak**


Tel.: 943 71 24 11  
Fax: 943 71 21 19  
ARETXABALETA

Jou Diaz



Harakina

Loramendi 1, • Tel: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren, 3  
Tel.: 943 77 11 76

**ZARAIA**  
**TABERNA**

Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzuan  
Tel.: 943 79 88 95

**MANTEKA ANAIK**



KIROLA: MAIDER UNDA, EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO BORROKA LIBREAN TXAPELDUNA /71

"Konpetitza oso gogorra da. Konpetitzaari laguntzeko hasi nintzen ziklismoaz gozatzen"

KIKLO LABURU /71

# Goienkaria



**JOSEMAN MANUELA**  
"Herri aldiakariak erortzen jarritik, ezaberraketa produktua jendakariak ez dira izan" /71

**Goienkaria**  
Barrutako berriak  
Zuzendaria: Mainer Unda

**HERIZI HERIZI**  
Auzoketarako sartu ditu  
Burgara zaharrik (1A),  
1A eta 102. etzeak korandak /71

OHARUA: EGITASMOAREN BAI EGIN DUTE BAILARAKO SEI URDAK

## Euskarazko hedabideen aldeko hitzarmena Aramaion

- Herriko sei udal, Goienkaria, Ezkizuko Argitaletxea
- Burgara, Elkartu eta Olatuko udalok ez dute erabaki berri hartu
- GOITI, Goienkaria eta aldiakariak diruz lagunduko dituzte



Bailarako sei udal eta Goienkaria, Ezkizuko Argitaletxea eta aldiakariak diruz lagunduko dituzte.

**BIETI**  
Bidebarrietako etxebizitzak eguzkitan erabiltzeko diruzte

Konpetitza, erabakiak 11. herriko udalarekin batera Bidebarrietako etxebizitzak erabiltzeko erabaki hartu da. Erabakiak 11. herriko udalarekin batera Bidebarrietako etxebizitzak erabiltzeko erabaki hartu da. Erabakiak 11. herriko udalarekin batera Bidebarrietako etxebizitzak erabiltzeko erabaki hartu da.

**ERREKIL**  
Etxebizitzaren gisako web orria sortu da Eskola Politikin

1911. urtean bertan sortu da Eskola Politikoaren web orria. Erabakiak 11. herriko udalarekin batera Bidebarrietako etxebizitzak erabiltzeko erabaki hartu da. Erabakiak 11. herriko udalarekin batera Bidebarrietako etxebizitzak erabiltzeko erabaki hartu da.

**Gure Bailarako Patxarana**

BERTRAIN, NAYURRIA

1911. urtean bertan sortu da Eskola Politikoaren web orria. Erabakiak 11. herriko udalarekin batera Bidebarrietako etxebizitzak erabiltzeko erabaki hartu da. Erabakiak 11. herriko udalarekin batera Bidebarrietako etxebizitzak erabiltzeko erabaki hartu da.

**brakale Eskola**  
Ziurazko etxetik ospatuko ditu aurtan

1911. urtean bertan sortu da Eskola Politikoaren web orria. Erabakiak 11. herriko udalarekin batera Bidebarrietako etxebizitzak erabiltzeko erabaki hartu da. Erabakiak 11. herriko udalarekin batera Bidebarrietako etxebizitzak erabiltzeko erabaki hartu da.



HERIZI HERIZI: 4-6 • GUTURRA: 9-11 • OZTOLA: 7 • KIRKOA: 10-11 • KORTUA: 10-11 • NUBA: 200-10-17 • GALATIKA: 10 • BIZI: 200-10-17 • TELEFONA: 22

Goienkari barruan, astero eta herriko etxe guztietara helduko da Aretxagazeta.

# Aretxagazeta berria hilaren 19tik aurrera

Urriaren 19tik aurrera Aretxagazeta astero jasoko duzue zuen etxeetan. Aretxabaletako etxe guztietara helduko da egubakoitzero. Esan genezake, hortaz, aro berri bat hasten dela egun horretatik aurrera. Izan ere, azken urteotan hamabostero jaso dituzue herriko berriak. Aurrerantzean, ordea, freskoago helduko zaizkizue. Urriaren 19tik aurrera, ezer ez da berdin izango Aretxabaletan.

# Aretxagazeta

ARETXABALETA / ESKORIATZA / LEINTZ GATZAGA

Aretxabaletan,  
Eskoriatzan  
eta Leintz  
Gatzagan.

Ze barri?

Aretxagazeta

**Goienkaria**

Debagoieneko  
berri denak

**GOIENKARIA**  
**EDIZIO EKIN.**  
**DEBAGOIENEAN**

Prentsa idatzaren lehen aurrekariak erro-  
matar garaikoak diren arren, prentsa  
modernoaren hastapenak XVII. mendean  
koka daitezke, *Nieuwe Tijdingen* egunka-  
ri belgikarra erregularitasunez argitara-  
tzen hasi zenean.

Debagoiena aitzindari izan da Euskal  
Herrian herri prentsaren garapenean.  
1988an, *Arrasate Press* sortu zen eta,  
harrezkero, beste bost aldizkari ere  
badaude eskualdean.

1999an, eskualdeko komunikabideen  
bateratzea hasi zen eta 2000n,  
*Goienkaria* jaiotzen, eskualdeko aldizka-  
ria.

Orain, urriaren 19an, egungo aldizkariak  
ediziotan batuko dira. Herri bakoitzak  
oraingo aital komuna eta bere edizioa  
jasoko ditu.



**URRIAREN 19tik AURRERA, ARETXAGAZETA NEURRI HONETAN, ASTERO**

**ARRASATEKO EDIZIOA**

Arrasate Press / Txirritola

Arrsate / Aramaio

24 orrialde (+ Goienkaria, 24 = 48)

**BERGARAKO EDIZIOA**

Berrigara / Kontuola / Goibekokale

Bergara / Antzuola / Elgeta

24 orrialde (+ Goienkaria, 24 = 48)

**ARETXABALETAKO EDIZIOA**

Aretxagazeta / Ze barri?

Aretxabaleta / Eskoriatza eta Leintz Gatzaga

12 orrialde (+ Goienkaria, 24 = 36)

**A**ldaketa handia izango da, ez bakarrik maiztasunari dagokionez, baita formatuari, lan egiteko moduari edota lan taldeari dagokionez ere. Esaterako, orain arte Aretxagazeta Din A4 edo aldizkari formatukoa izan bada, aurrerantzean Din A3 edo egunkari formatukoa izango da. Bestalde, Goienkariaren barruan joango da, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako berrieekin batera, hau da, Ze barri?rekin batera. Hortaz, ibar osoko albistek biltzen dituen eta Debagoieneko herri denetan banatzen den 24 orriko atal komunarekin batera, barruan, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako berriak jasoko dituzue, beste 12 orrialdeko edizioan. Guztira, 36 orriko egunkari formatuko astekaria jasoko duzue.

**HIRU EDIZIO EZBERDIN**

Goienkariak, herrietako hiru edizio ezberdin izango ditu: Arrasatekoa, Bergararkoa eta Aretxabaletakoa. Lehenengoan, Arrasateko

eta Aramaioko berriak jasoko dira eta 24 orrialde izango ditu. Bigarrenean, Bergararko, Elgetako eta Antzuolakoak; honek ere 24 orrialde izango ditu. Bestea, Aretxabaletako edizioa izango da.

Aretxabaletako edizioan, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako berriendako hiru orrialde izango dira. Gainerakoak, Aretxabaletako berriendako. Aretxabaletako edizioaren lehenengo orrialdea Aretxagazetak hartuko du. Beste bi herrietakoak ere ondo bereiztuko dira Ze barri?ren mantxetapean.

Goienkariaren hiru ordezkariak, Arrasatekoa, Bergararkoa eta Aretxabaleta

takoa sarean izango dira, hau da, elkarren artean informazioa elkar trukatzeko aukera izango dute.

**ALBISTEAK, IRITZIA ETA ZERBITZU-INFORMAZIOA**

Baina, Aretxabaletak, Eskoriatzak eta Leintz Gatzagak sortzen dute astekari batentzako adina informazio? Horixe da, hainbati entzun izan diogun galdera. Baietz esango genuke. Kontuan izan behar da, astero sortzen diren albistez gain, agenda, zerbitzu-informazioa, herritarren iritziak, elkarrizketak, gai historikoak edo atemporalagoak direnak, erretratu zaharrak, kanpoan bizi diren herritarren gaineko

ak... hau da, era askotako berriak jasoko direla. Sail batzuk asterokoak izango dira, hau da, albistea sortu eta berehala kontatuko dizuegu, edo ohar eta deien berri puntuala izango duzue. Baina, beste sail batzuk ez dute asteroko maiztasuna izango. Horrela, bada, astero informazio puntuala jasotzeaz gain, entretenitzeko edo hausnarketarako aukera ere izango duzue.

**LANTALDE PROFESIONALA**

Esan dugun moduan, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako berriak jasoko dituen edizioa Aretxabaletan egingo da, gaur egun Aretxagazeta egiten den erredakzioan. Aintzane Gardoki izango da ordezkariaren arduraduna eta berarekin batera Mirari Altube eta Amagoia Lasagabaster ariko dira. Horrez gain, Ziortza Martin ibiliko da komertzial lanean.

Goienkariaren hiru ordezkariak, hau da, Arrasatekoa, Bergararkoa eta Aretxabaletakoa sarean

---

**“Aretxabaleta, Eskoriatza eta**

**Leintz Gatzagako**

**berriak jasoko dituen edizioa**

**Aretxabaletan egingo da”**

---

izango dira, hau da, elkarren artean informazioa elkar trukatzeko aukera izango dute.

### HERRI PRENTSAN EREDU

Gaur egun, herri aldizkari gehien dituen eskualdea da Debagoiena: zazpi, hain zuzen ere: Arrasate Press, Berrigara, Aretxagazeta, Kontuola (Antzuola), Kontzejupetik (Oñati), Ze barri? (Eskoriatza eta Leintz Gatzaga) eta Goibekokale (Elgeta). Herrieta-koez gain, bailara osoan banatzen den astekaria ere bada: Goienkaria, euskaraz idatzitako komunikabide batek inoiz izan duen zabalkunderik handiena duena (20.000 ale). Oñatiko Kontzejupetik izan ezik, gainerako guztiak Goienak kudeatzen ditu.

Beste arlo batzuetan bezala, herri prentsan ere aitzindari izan da eskualde hau. 1988an Arrasate Press sortu zen, eta azken hamarkadan hainbeste ugaldu diren tokian tokiko aldizkariendako eredu izan da. Euskara elkarte eta herri administrazioen lankidetzari esker, gure bailaran beste inon baino herri aldizkari gehiago ditugu. Denak euskaraz idatziz.

Baina, herri guztietan ez dute maiztasun berarekin jasotzen herrietako berriak. Goienkaria da astero herri guztietan banatzen den aldizkari bakarra. Arrasaten eta Bergaran ere astero jasotzen dituzte euren herrietako berriak. Beste herrietan, hamabostero edo hilero. Hortaz, aldizkari guztiak asteroko martxan jartzea da Goienak, prentsa arloari dagokionez, duen lehenengo helburua. Urriaren 19tik aurrera izango da hori.

## Zer galduko du eta zer irabaziko Aretxagazetak aldaketarekin? Atxabaltarrek nola hartuko dute itxura berria? Aretxagazetak gordeko du bere nortasuna modelo berri honekin?

### 1. INAXIO GARRO

■ Galtzea edo irabaztea zer den esatea zaila da. Batentzat galtzea dena bestearentzat irabaztea izan liteke, eta alderantziz. Neuk, behintzat, nostalgiaz begiratu diot iraganari: formato txikia, irakurterraza, bazkide izateak ematen duen laguntzaile-kontsiderazioa. Bestalde, itxaropentsu nago aldizkariaren etorkizunaz, proiektu zabal eta aberasgarri baten dinamikan parte hartzen baitu. Proiektu berri guztiek behar izaten dute egokitze-prozesua, eta horrek irauten duen bitartean, deseroso eta kezkatuta egoten gara, denboraren joan-etorrian leku egokia bilatu nahian.

■ Hartara egin ginen, eta honetara ere egingo gara, denera ohitzen garen neurrian. Batzuek faltan botako dute formato txiki zaharra, eta beste batzuek, ordea, etorkizunari begira eskaintzen dituen modernotasun eta berrikuntzak begi onez ikusiko dituzte. Modu batera edo bestera, gurea eta guretzat den neurrian, maitatu eta zaindu egin beharko genuke.

■ Lehenago aipatutako alderdiak aldatuko diren arren, aldizkariak zeukan filosofiaren mamia eta helburu nagusia ez lirateke galdu behar, hau da, gaur arteko idazkera erraza, gaiak aztertzeo eduki dituen zabaltasun, objetibotasun eta aniztasuna, eta atxabaltar guztion partehartze eta iritzi-irizpideak. Azken finean, fondoak eta formak eman diote Aretxagazetari bere nortasun propioa. Hori guztia galtzen bada, larrugorrian geldituko litzateke nortasuna.

### 2. JOSU URKIA

■ Aldizkaria bera helburu bezala jarri ezkeru seguruenik aldaketarekin gehiago dauka galtzeko irabazteko baino. Baina ezinda ahaztu hau bailarako proiektu komun bat dela, eta ikuspegi global horretatik begiratuta, bailaran euskararen erabilpena indartzeko pauso garrantzitsua izango dela uste dut.

■ Suposatzen dut hasiera baten arraro samarra irudituko zaigula, gehien bat formatu aldaketagatik, aldizkari formatua erakargarriagoa delako, baina funtsean balio duena mamia denez, itxura berrira laster ohituko garela uste dut.

■ Hemendik aurrera produktua ez da gehiago Aretxagazeta izango Goienkaria baizik eta alde horretatik proiektua osatzen dugun talde desberdin guztiok, galdu dezakegu nortasun "kuota" bat baina garrantzitsuena zera izango da, produktu berriari denok betetzen gaituen nortasun bateratu bat ematea.

### 3. ANA HERIZ

■ Astero kaleratuko denez, herriko berriek gaurkotasun gehiago izango dute. Gainera, herriko berriez gain eskualdekoak ere jasoko ditugu.

■ Aretxagazetak bere bilakaeran hainbat aldaketa izan ditu, ohitzen joan gara, itxurara egin gara eta, bilatu nahi duguna hurbileko informazioa da.


■ Herriko informazioa euskaraz emateko sortu zen. Hasieran hiruhilabeteko maiztasunez, ondoren hilabetero, egun hamabostero eta etorkizunean astero; informazioa epe laburragoan jasotzen badugu, helburua lortzen doan sinalea da.

### 4. MIKEL URIBETXEBARRIA

■ Astekaria izanda berri freskoagoak ekarriko dizkigu eta bestalde, astero bost orriko edukiña nahikoa dela uste dut. Galtzen duguna, herriarekin identifikatzen den aldizkaria da.

■ Hasieran nahiko jarrerara kontrajarriak izango direla uste dut, batez ere, aldizkari formatutik egunkari formatura pasatuko delako. Epe motzean, jendeak positibotzat joko du aldaketa. Aretxagazetako bilakaeran parte hartu duentzat ere gogorra izango da erabaki hau.

■ Goienkariaren barruan eta beste aldizkari batzuekin banatzean eskusibotasuna galduko du, baina nortasuna galtzeko arrazoirik ez dago.



Aretxagazetako zuzendari ohiak



Clio kopa

Zorionak Ander Corcuerari. Joan den domekan Ander Corcuerak Madrilgo Jarama zirkuituan ospatu zen Clio Kopak izeneko auto lasterketan parte hartu zuen. Anderrek lan bikaina egin zuen gainera. 48 areriores aurrean, ondo merezitako 21. postua lortu zuen. Ander arrasaterra den arren, Atxabaltan sarri izanten da. Horregatik, Aretxagazetaren eta herrikoen partez zorionak eman gura izan digu.




Pilota

Pilota txapelketa. Asteburu honetan klub arteko pilota txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu da. Guztira bost partida jokatu dituzte herriko jokalariek, baina zorte haundi barik. Bigarren mailako kadeteek galdu egin zuten. Jubeniletan, barrez, bikote batek bakarrik irabazi zuen. Eta azkenik seniorretan, bi bikoteek galdu egin zuten. Emaizta horiekin ezin esan jardunaldi ona izan denik pilotarientzat.



Futbola

Jose Javier Barquero Realean titular. Azken partidaren titular jokatu zuen Barquerok. Azken denboraldia Eibarren jokatu ondoren, berriz ere Realean daukagu herriko jokalaria. Azken domekan, gainera, titular moduan atera zuen Toshackek. Partida bikaina jokatu zuen lehenengo denboran, bigarrean aldiz eserlekuan gelditu zen. Hala ere, horrela lanean jarraitzea opa diogu Barquerori.



Xakea

Urnietako xake txapelketa. Arlutz xake taldeko hiru kidek domekan Urnietan ospatu zen xake txapelketan hartu zuten parte. Profesionalen artean gainera, herrikoak gailendu ziren. Lehengo postua Feliz Izeta "maixu handia" rentzako izan zen. Bigarrena, berriz, Aitor Alcaiderentzako, eta hirugarren postua Fran Migelek eskuratu zuen. Hirugarren atxabaltarra, Esteban Romero 11. gelditu zen.

*Hemezortzi urte daramatza Odilok Karatea egiten. Eta oraindik, etengabean, ikasten badihardu ere, maixua ere bada. Ez nolanhikoa gainera, gerriko beltza duen irakaslea dugu Odilo. Irailean gainera, gerriko beltzaren 3. DAN maila lortu zuen.*

■ Irailean zure gerriko beltzaren beste maila bat lortu zenuen, ez da horrela?

■ Bai. Logroñon ospatu zen lehiaketa, eta bakoitzak bi modalitatetan hartu genuen parte. Epaimahaia izaten da puntuazioa ematen duena, eta ondo eginez gero, mailaz igotzen duzu. Nik 1996. urtean atera nuen 2. DAN delakoa, beraz dezente kostatu zait 3.a ateratzea.

■ Zaila ahal da gerriko beltza eduki eta gero mailaz igotzea?

■ Bai, lehenengo kolore guztietako gerrikoak lortu behar dituzu. Gero, beltza daukazunean, mailaz igotzea da helbururik garrantzitsuenak. 10. DAN izeneko maila da altuena eta oso

jende gutxi heltzen da bertara.

■ Karate irakaslea ere bazara, zer moduz maixu moduan?

■ Ondo moldatzen naiz. Kiroletxean ematen ditut eskolak eta aurten bi talde ditut. Seitik hamar urtera bitartekoen taldean 23 neska mutil ditut. Nagusietan berriz, bederatzi ikasle ditut. Gehienak mutilak dira, bi neska bakarrik ditu beraz, neska gehiago apuntatzeko deialdia egin gura nuke hemendik.

■ Karatea modan dago?

■ Beharbada bai, nik ikasle gehiago ere izan nitzakeen, baina kiroletxean espazio falta dago. Hori da gaur egun dugun arazoa, neska mutil ugari ditugu, baina ez dakigu eskolak non eman.

■ Karatea zer da, kirola arte modalitate bat...?

■ Nire ustetan kirol bat da. Gertatzen dena zera da,

## Odilo Vazquez

### Karate irakaslea

jantzi ikusgarri xamarrek erabiltzen ditugula eta horrek harridura apur bat sortzen duela.

■ Urtean zehar txapelketarik jokatzeko ahal duzue?

■ Gehienbat mailaz igotzeko, edo gerriko berri ba lortzeko entrenamenduak egiten ditugu. Gero Martxoan Oñatin ospatzen den txapelketa batean hartzen dugu parte. Hala ere, federazioak lortu ezin ditugunez ezin

dugu txapelketa ofizialetan parte hartu.

■ Zein da federazioarekin duzuen arazoa?

■ Gipuzkoako Diputazioak ez digu haurrak federatzen ustean, eskolako kirol ekinzetan bakarrik lor daiteke federazioa. Ez dakigu zein den zergatia. Bizkaian eta Araban, esaterako ez dute arazo hori, han gura duenak du federatu txartela.







Aretxabaletan ekainean egin zuten Felix Iñurrategiren mendi eskola sortzeko proiektuaren aurkezpena.

## Felix Iñurrategi-Baltistan fundazioa martxan

Joan den eguaztenean aurkeztu zen prentsaurrean Felix Iñurrategi-Baltistan fundazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan. Bihar, hilak 12, berriz, Felixen omenez Euskalduna Jauregian jaialdia egingo da. Bertan, bide batez, fundazioa ezagutzera emateaz gain, beronen helburu eta proiektuak aurrera eramateko harpidetza kanpaina jarriko da martxan, dirulaguntzak lortzeko.

Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioaren helburu nagusia Pakistanen dagoen Baltistan eskualdeko gara-

pen ekonomiko eta kulturala bultzatzea da. Horretarako, bi proiektu egin dituzte. Batetik, lehenago ere Aretxabaletan aurkeztutako mendi eskolari lagunduko zaio. Bestetik, Machuluko herria urez hornitu gura dute. Azken egitasmu honek 33 milioitako aurrekontua du. Diru hori lortzeko hainbat bazkidek hartu dute parte dagoeneko Fundazioan, horien artean Aretxabaletako udalak.

### Udala bazkide

Fundazioa bazkideak lortzeko Debagoieneko hain-

bat udalengana jo zuen. Horietatik laguntza berezia Aretxabaletako eta Gatzagako udalek eman dute printzipioz. Aretxabaletakoak, gainera, bazkide sortzaile bezala hartu du parte Fundazioan eta irailaren 24an egindako osoko bilkuran milioi bateko diru partida sortzea onartu zen. Zuzendaritzako kide izatea ere pentsatu zuen hasiera batean, baina laguntza baino gehiago arazoak sortuko zituela-eta, bazkide sortzaile soil izateko erabakia hartu zuen.

■ **UDAKO PREFERENTEA LEHENENGO** Ligari sekulako hasiera eman dio Uda taldeko preferenteak. Asteburuero partida bikainak jokatu eta sailkapeneko buru dira gaur egun hamabost punturekin. Azken partida joan zen domekan jokatu zuen Ibarra futbol zelaian Elgoibarren aurka. Emaitza hiru eta batekoa izan zen etxekoen alde. Golegileak Alberto eta Canas izan ziren. Azken honek gainera, sekulako partidak jokatu ditu denboraldia hasi denetik. Asteburu honetan, Udak Mutrikoko taldea izango du aurkari. Irabaziz gero, lehenengo postuan jarraituko dute. Sailkapenean hurrengo, Pasajes taldea dago 13 punturekin. Hirugarren berriz, Elgoibarrekoak daude 12 punturekin. Orain, Udaren helburu nagusia orain arteko jokuaren maila mantentzea da.



### Taberna Berri jatetxea

Durana, 26 •  
ARETXABALETA  
☎ 943 79 20 67

*Okindegia - Gozotegia*

*Aretxabaleta*

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
Basabe, 2 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta  
Bertako okina




**Irudi**  
 ILE APAINDEGIA  
 ESTETIKA  
 SOLARIUMA

Zure estiloa zein den badakigu: ile motza, luzea, permanentea, ile bildua... Ausart zaitetz luzapenak egite-ra edo udazken-negu denboraldirako koloreekin. Etor zaitetz **IRUDI**-ra. Modan jarriko zaitugu.

**Ausart zaitetz!**

Errekabarren, 20 b. Tel.: 943 79 80 90

*Kalitateak mugarik ez*



**ARGI-PLASTIK**

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
 Zigorrola, 1 8. Pabilioia  
 Tel.: 943 77 11 30  
 ARRASATE



## Agur Aretxagazetari

Joan ziren San Migelak, bai aguro joan ere, batzuk ederto pasatu genituen, beste batzuk auskalo! Izan ere giroa ez dute antolatutako ekintzek jarten, ezta tabernekin ere, giroa guk geuk berotu behar dugu ekintzetan parte hartuz, eta argi geratu da San Migeletan jendea ez dala batera animatu. Zapatuan, egunean zehar herritar ugari jantzi zen baserriak eta Durana kalea eta plaza bete egin ziren, baina gauetako dantzaldietan, eta pilota partiduan ez zen girorik egon. 60 sarrera besterik ez zirela saldu esan didate. Penagarria.


Dana, gainera, ez zen ondo atara neure ustetan eta ikusitako hutsegiteak ere aipatzea gura nituzke hurrengorako zuzentzeko. Bazkaria hasi orduko ia hiru eta erdiak egin zitzaigun erdiak baino gehiago zutik zeudelako, ez dakit noren errua izan zen, eta bila ere ez nabil pasatuta dago eta, baina datorren urtean hobeto antolatzea eskatuko nuke. Joseri egindako omenaldian ere, gidari bat bota nuen faltan, ikusten egon gineno eta Joseri berari ere zer zetorren edo zer

egin esateko. Hau ere datorren urtean hobeto.

San Migelek hainbat txapelkun utzi zituzten. Batetik, txirringulak kriteriumekoak, sailkapen orokorrean **Iker Leonet**, **Iñigo Lariz** eta **Jesus Manuel Chamorro** geratu ziren lehenengo hiru postuetan. Bestetik, mus txapelketakoak, **Juan** eta **Julian** arrasatearrak lehenengo eta **Regino** eta **Lazaro** atxabaltarrak bigarren. Murruxok hiru txarritxo zozketatu zituen, baina momentuz jabe bakarra azaldu da, besteek ez ete dute gura sarria... Sariei dagokienez, San Migeletan ez baina ETBko Kirolez kirol saioan parte hartzeagatik urrezko erlojua tokatu ei zaio **Iker Altunari**. Ez da gero opari makala.

Bukatzeko agur esateko ordua heldu da, ez agur zuei, Aretxagazetari baik. Gure **Aretxagazeta** honi agur eta berriari ongi etorri. Neuk ere ez dakit ondo nolakoa izango den, datorren astean ikusiko dugu, baina gano-rezko zer edo zer izatea espero dut. Aldaketa dela eta nahikoa burukomin izan dute batzordekide eta langileek beraz, hoberrakoa izan dadila.

*M. J. Aretxaga*



## SPRAKO tranbia

Unai Elorriaga  
Elkarlanean, 2001

Lucas agure zahar bat da, poliki poliki burua galtzen joango dena nobelan zehar bere amaierara heldu arte. Ez da liburu gogorra, dena den, zahartzaroa eta gaixotasuna modu naturalean tratatzen ditu idazleak, sentimenduei garrantzi handia emanez, gauza txikietan errepikatuz eta ironia fin batez. Lucas bere arrebarekin bizi da eta ezustean beraiekin bizitzera jarri den gazte batekin. Denak ere oso gustora bizi dira elkarrekin eta lotura berezia dute. Lucasek mendia maite du, Shisha Pangma batez ere, eta tranbiak ere maite ditu.

Estilo berezia darabil Elorriagak bere lehen nobela honetan; kontaketa ez da lineala eta tarteka protagonistek idazten dute. Hau ez da ekintza maite duenarentzat liburu, sentimenduak eta pertsonen arteko harremanak. Dena den era berezi eta zoragarrian tratatzen ditu idazleak.

Joseba Lopez de Armentia

## HERRIKO EUSKERIA BULTZAKETAN

Euskaltzaindiak be oraintsu onartu dau euskera sendotu eta bultzaketako ezinbestekuek direla euskalkiak. Hortantxe dabil hain zuzen Badihardugu elkartia, Deba ibarreko euskalzaleen indarrak batu eta danon artian gure herriko euskariari bultzakada bat emun guran.

Badihardugu, Eibarren sortu zan iazko azaroa inguruen. Atxabaltarrak be badabitz bertan: Miriam Txintxurreta, Goretti Ayastuy, Leire Okaranza eta Lora-

mendiko lagunak.

Horrezkero makina bat batzar egin dittuzte eta poliki-poliki lana aurrera doia. Oin bailarako udalen parte-hartzia gura dute eta hitzarmenak firmauko dittuzte herriko euskeriaren alde lan eitteko.

Atxabaltan oraindik ez da ezer firmau baina ez da kontrarik espero, Josu Atxaga euskara zinegotziak esan dauenez. Ia danon artien gure herriko euskaria gorde-teko kapaz garen.



**Badihardugu**  
Deba Ibarreko Euskera Elkartia

## IKASTAROAK

■ ESKULAN  
IKASTAROAK

Bainika, ritxelieta, palestrina, dekorazioa, taracea, papier... eta bese hainbat ikastaro antolatu ditu udalak. Astelehen, martizen, eguazten eta eguinetan emango dira ikastaroak, goizez nahiz arratsaldean eta ordutegi ezberdinak daude aukeran. Izena emateko kultur etxetik pasatu edo bertako telefonora deitu behar da goizeko 11:00etatik 13:00ra bitartean, 943 711027.

■ GRAFOLOGIA  
IKASTAROA

Pertsonen nortasuna aztertu eta ezagutzeko 2. grafologia ikastaroa antolatu du udalak. Azaroaren 3an hasita abenduaren 15a bitartean zapaturu emango da, eguerdiko 12:30tik 14:30tara. Prezioa 3.105 pezeta da, eta izena emateko kultur etxera deitu edo bertatik pasatu daiteke.

## URRIA

## 12 EGUAKOTXA

■ FELIX IÑURRATEGI-BALTISTAN  
FUNDAZIOAREN  
AURKEZPEN JAIALDIA  
Jaialdia Bilboko Euskalduna jauregian izango da eta bertara joango direnek Ainhora Arteta, Kepa Junkera, Mikel Urdangarin, Andoni Egaña eta Argia dantza taldea ikusteko aukera izango dute.

## 21 DOMEKA

■ V. GASTRONOMIA ETA  
FOLKLORE JAIALDIA  
Extremadura, Andaluzia, Errioxa, Gaztela eta Leon, Galizia... eta beste herrialde batzuetako gastronomia eta folkloreak gozatzeko aukera izango da egunean zehar.



## IKASTAROAK

■ BAINIKA ETA  
ESKULAN IKASTAROAK

Rosa del Aguilak emango du eskulan ikastaroa martizenetan urriaren 16an hasita eta bainika ikastaroa barriz, Blanka Perekasteazkenetan. 18:00etatik 20:00etara izango dira biak eta prezioa 3.200 pezeta da. Izena emateko Loramendira deitu 943 770970.

## ■ BEGIRALE IKASTAROA

Eskualdeko euskara elkarreetek begirale ikastaroa antolatu dute. Zapatuetan emango da eta izena emateko Loramendi euskara elkartera deitu behar da. Telefono zenbakia: 943 770970

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

*Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea*

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

**Mobiliario  
ARENAZA**

• ALTZARIAK  
• DISEINUA  
• APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETAK

**ARETXABALETAK  
ITURGINTZA**

Durana, 16 - Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETAK

**ANDRA  
MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala  
- Kontablea  
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 943 79 29 26

**Zubia**



ZAPATAK, ZAPATILAK  
GERRIKOAK  
ETA POLTSAK

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00  
ARETXABALETAK  
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53  
ARRASATE

BITXITEGIA ERLOJUDENDA

**MIREN & ZURINE**  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN KONPONKETA

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)  
Tel.: 943 77 13 57

*Bereziki: Harategia  
Urdaitegia  
Fruitategia*

**IMANOL  
JANARI DENDA**

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

## Zorion agurrak



Idoia Iturralde  
Irailak 29  
Berandutxo bada  
ere zorionak etxe-  
koen eta lagun  
partetik.



Jon Iriondo  
Urriak 2  
Zorionak anaia  
Markel eta gurasoen  
partetik.



Kizkitza Zillauren  
Urriak 11  
Zorionak etxe-  
koen partetik!



Nerea Arriola  
Urriak 12  
Zorionak kuadrilako  
lagunen partetik.



Lore Martinez  
Urriak 15  
Zorionak eta urte  
askotarako lagun  
guztien partetik.



Danel Larrañaga  
Urriak 16  
Zorionak etxe-  
koen partetik eta  
ondo pasatu urte-  
betetze egunean.

Datorren astetik aurrera Aretxagazeta berria kaleratu arren zorion agurren tarreak bertan jarraituko du. Beraz, sail honetan norbait zoriondu gura baduzu Aretxagazetara zuzendu (Durana, 11) edo eta 943 79 86 21 telefonora deitu.

### Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murrukixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 71 18 62
• Udaltzaingoa	943 71 18 63
• Urats Gain	943 79 99 11

### Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

### Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

### Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

## Txistuak • Txaloak

Erretzea ez ei dago modan. Erretzea, ostera, ez da moda kontua, osasun kontua baizik. Horregatik txalo haundi bat udaletxeko langile eta politikarientzat antolatu zen erretzen uzteko ikastaroari. Txaloa bai antolatu zutenei, bai bertan parte hartu zuten hamairu lagunei. Joan zen eguakotxean, gainera, errefortzuzko ikastaroa izan zuten eta gehienek tinko jarraitzen dute nikotinaren deiauren aurrean. Parte hartzaileen emaitzak ikusi ostean, baliteke enpresetara eta azkenean herritarrengana ere zabaltzea ikastaroa. Uztazu tabakoa albo batera beranduegi izan baino lehen, zurekin bizi direnek eta batez ere zure gorputzak eskertuko dizute.



## Hildakoak

### ■ Jesus Prieto Gonzalez

Irailaren 27an.

### ■ Nicomedes Varilla

Caballero  
Irailaren 28an.



## A Garai bateko eskola kontuak

Argazki benetan zaharra topatu dugu oraingoan, **Regina Elejalde** zenak emandakoa. XX. mende hasierakoa bada behintzat. Ezin izan dugu bertan agertzen den neska kuadrilako inor ezagutu. Norbaitek ezagutuko balitu gustora hartuko genuke informazioa, denon gustukoak dira eta kontu zaha-

rrak.

Andereñoa, ostera, ezagutu dugu, **Doña Francisca** da urte askoan egon zena Aretxabaletan nesken irakasle. Senarra, barrez, Don Santiago Ondarra zen, hau mutikoen irakaslea. Izan ere, orduan neskak eta mutilak ondo bananduta ibili behar ziren, bestela... 14 urte arte

joaten ziren eskolara neskatilak, goizetan klaseak ematen zizkien Doña Franciscak eta arratsaldetan eskulanak egiten zituzten: punto kruz, gantxiloa, bordatzen ikasi... Eskolan noski dena gatzeleraz erakusten zen, baina euskaraz berba eginez gero ere ez zuten zigorrik jasoten, hori geroago etorri zen.



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Nikon kamera bat sukurtsalera ez joateagatik



NIKON AF 230 • Fokatzeko automatikoa • Objektibo angelu handia • Pelikularen aurrerapen automatikoa • Flash automatikoa barne • Begi gorriak murrizteko gailua

Aldatzen ari da gure finantza-entitatearekin harremanak izateko modua. Dagoeneko ez dago sukurtsalera joan beharrik ohiko gestioak egiteko. Telefonoz edo Internet bidez konpontzen dira. Eragiketaren bat egiteko premia duzun bakoitzean deitu 901 333 444 telefonora, edo konektatu [www.cajalaboral.com](http://www.cajalaboral.com) helbidearekin. Irabazten aterako zara, zeren eta urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartean Telebanka eta Caja Laboral Net erabiltzen duten bezeroen artean, **HILERO 50 NIKON ZOZKETATUKO BAITITUGU.**



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**

Zurekin elkarlanean



Zaindu zaitez.



grupo



**Amuebladora  
Mondragonesa**

a. eme. interiores  
a. eme. sukaldeak  
centro hogar mueble  
sofa leku

■ Tel.: 943 79 15 03  
■ Tel.: 943 77 14 92  
■ Tel.: 943 71 10 12  
■ Tel.: 943 77 14 92

[www.grupo-aeme.com](http://www.grupo-aeme.com)

[grupoam@grupo-aeme.com](mailto:grupoam@grupo-aeme.com)